

GURE JAUN CHIT SANTU PIO BEDERATZIGARRENAREN,
JAUNGOIKOAREN PROBIDENZIAZ AITA SANTU DANAREN,

APOSTOLU LETRAK,

JAUNGOIKOAREN AMA DONZELLAREN SORRERA GARBIA
FEDEKO SINISTAMENTZAT JARRI ZUENEAN EMANAK



Damos comienzo, con el mayor gusto, á la publicacion de la traduccion hecha al bascuence guipuzcoano en 1862 por el ilustre euskarófilo Fr. José Antonio de Uriarte, de la Bula *Ineffabilis Deus*, de S. S. Pio IX, declarando dogmática la Inmaculada Concepcion de la Virgen María.

Hízola el docto bascófilo por encargo de la Diputacion foral de Guipúzcoa, á fin de que, copiada por un diestro calígrafo, para lo que se eligió al maestro de instruccion primaria de la villa de Urnieta, D. José Antonio Zabalo, figurase en la *traduccion manuscrita de la Bula de definicion, hecha en todas las lenguas del mundo*, por iniciativa del señor Obispo de Puy, y que se ofreció al Santo Padre.

Esta version, visada y aprobada en su parte religiosa por el P. Provincial de la Orden Fr. Mariano de Estrada, docto sacerdote y conocedor profundo de los dialectos guipuzcoano y bizcaino, fué sometida en cuanto á su parte literaria al exámen del respetable jurisconsulto de Tolosa, D. Ramon de Lizaraburu, quien la halló digna del justo renombre del traductor.

El mismo P. Uriarte habia vertido anteriormente la Bula *Ineffabilis Deus* al bascuence marqués: el maestro de Abando sacó dos primorosas copias de esta version, de las que una se remitió á la mencionada coleccion de Puy: la otra debe obrar en los archivos del Señorío.

De la traduccion que el insigne franciscano hizo al bascuence ha-

blado en las hermandades alabesas que aún conocen el idioma euskaro, por encargo de la Diputacionforal de aquella provincia, á cuyo frente figuraba á la sazón el inolvidable patricio D. Ramon Ortiz de Zárate, no consta dato alguno en el Archivo de la Diputacion provincial de Guipúzcoa, que es donde hemos adquirido las curiosas noticias que anteceden.

Gure Jaun chit santu Pio bederatigarrenaren, Jaungoikoaren probidenziaz Aita Santu danaren, Apostolu letrak, Jaungoikoaren Ama Donzellaren sorrera garbi fedeko sinistamentzat jarri zuenean emanak.

Pio Apaiznagusi Jaungoikoaren serbitzarien serbitzariak betiko oroipenerako.

Jaungoiko esan eziñak, zeñaen bideak diraden urrikaltasuna eta egia, zeñaen borondatea dan guzaltasuna, eta zeñaen jakinduria allegatzen dan portizkiro ertz batetikan bestera, eta guzia erabakitzen duenak leuntasunarekin, lendanaz ezaguturik betikoiraun guzitik gizatasun osoaren galmen chit negargarri, Adanen bekatutik etorriko zana, eta erabakirik mendeai estalitako ezkutapenean bukatzea ezkutapen oraiñdikan estaliago batekin Jaungoikoaren, seme aragituaren bidez, galdu etzedin bere ontasunaren lenbiziko egitea, bere asmo urrikaltsuaren gaitzean, deabruaren gaiztakeriaren astruziarekin bekatura eramana izandu zan gizona, eta lendabiziko Adanegan eroriko zana, bigarrenean zorientasun geiagora alchatua izan zedin, autu eta gertutu zuen asieratikan eta mendeak baño lenagotikan bere seme bakarrarentzat ama bat, zeñagandik, gizon eginda, jayoko zan denboren betetasun doatsuan, eta ama ori, beste izate guzien gañetik, alako moduan maitatu zuen, non, bera gan bakarrik zeukan gozotasunik gogokoena. Argatik bete zuen zeruko doai borondatezko eta mesedezko, Jaungoikotasunetikan ateratakoz, aingeru eta santu guzien gañetik, alako ugaritasunarekin, non, berak bakarrik, bekatu guziaren kutsutik beti eta osotoro garbi egonik, eta izanik guzia ederra, eta osoa, agertzen zuen ontasun eta santutasuneko alako betetasuna, non, Jaungoikoaz kanpora, ezin asmatu lezake andiagorik, eta Jaungoikoa ez izanean iñork ezin irichi lezake, ez da gogorazioz ere. Eta egiaz zan gauza chit egokia, argi egin zezala beti santutasunik osoenaren argitasunarekin, eta jatorrizko bekatuaren beraren kutsutik ere chit garbia, ama aĩñ benegarriak irabazi zezayola anziñako sugeari garaipenik osoena,

erabaki zuelako Aita Jaungoikoak, ama oni ematea beraren seme bakarra, zeñ sortuta bere biotzetikan berarekin berdiña, maitatzen zuen berak bera bezela; eta erabaki zuen ematea alako moduan, non, berez izan zedilla batean Aita Jaungoikoaren eta Birjiñaren semea, eta zeñ semeak berak autu zuen, egiteko izatez bere Ama, eta zeñagandik Espiritu Santuak nai izan zuen eta ala egin zuen, sortua eta jayoa izan zedilla Aita betikoaren semea, zeñagandik Espiritu Santua bera datorren.

Eta birjiña eta erregiña onen jatorrizko garbitasun, chit elkartu, eta itsatsia bere santutasun arrigarriarekin eta Jaungoikoaren amatasunaren diñade eregiarekin, Eliza santak, zeña, Espiritu Santuak beti argitu eta erakutsita dan egiairen abearri ta sendogarria, ez du iñoiz utzi besteai aurrean jarri, sendotu, argitu, eta azaldu gabe geiago eta geiago egunetik egunera arrazoe askorekin eta egite argitsuakin, Jaungoikoagandik artutako erakutsiaren jabea eta zeruak agertutako egien gordelekuan sartua bezela. Erakutsi au bada, sendo irautzen duena anziñako denboretatik, itsatsia chit portizki kristau fededunen animetan, eta munduko kristau guzien artean arrigarriro zabaldua elizako buru onen kontu eta arretarekin, agertu zuen chit argiro elizak berak atzerapen eta zabunikan gabetanik, baimena eman ziotenean kristauai, beneratzeko eta elizkizunak agirian egiteko Mariaren beraren sorrerari. Egite egiaz argitsu onekin, jarri zioten aurrean Birjiñaren beraren sorrera, bakarra, arrigarria, eta beste guzien asieratikan chit desberdiña, eta chit santeta bezela, elizkizunak egin zegizkiokan, elizak bakarrik santuai elizkizunak egiten diozkan ezkerro. Eta beragatik liburu santuak iñoiz egiña izan gabeko Jakinduriagatik esaten dituzten itzerañokoak, eta zeñakin iduritzen duten bere jatorri betikoa, jarri izan oi ditu elizako errezuetan eta mezako liburuetan, eta egotzi arako donzellaren sorrerari, zeñ izandu zan erabakia, Jaungoikozko Jakinduriaren aragitutzearen erabakian bertan.

(Aurrandetuko da.)



GURE JAUN CHIT SANTU PIO BEDERATZIGARRENAREN,
JAUNGOIKOAREN PROBIDENZIAZ AITA SANTU DANAREN,

APOSTOLU LETRAK,

JAUNGOIKOAREN AMA DONZELLAREN SORRERA GARBIA
FEDEKO SINISTAMENTZAT JARRI ZUENEAN EMANAK.



(AURRANDEA.)

Baña kristau fededunak esaterako toki guzietan sinistutako gauza guzi oiek, adirazitzen badute ere, nolako arretarekin begiratzen zuen eliza santa Erromako, eliza guzien ama eta irakasleak Ama Donzellaren sorrera garbiaren erakutsi orregatik, alaere, eliza onen egite argitsuak, dira egiaz berak bakarrik aitatzeko chit duiñak, eliza onen diñade eta eskua ain aundiak diraden ezkerro, nolakoa legez zor zayon, kristau fededunen egia eta batasunaren erdi eta barrena danari, zeñean bakarrik iraun zuen iñoiz autsi, eta galdu gabe siniste egiazkoak, eta zeñagandik artu bear duten beste eliza guziak fedeko erakutsia. Ala bada, Erromako elizak, etzuen ezer-tarako egin anbeste alegin, non, erakutsi, zaitu, zabaldu eta gordetzeko milla era eta modutara, eta anbat biziro eta argiroen, Ama Birjiñaren sorrera garbia eta bere elizkizunak eta beraren gañeko sinistea, argiro eta biziro erakusten duten bezela Aita Santu Erromako, gu baño lenagokoan anbeste egite egiaz ospatsuak, zeñai Apostoluen Prinzipeagan eman zioten Jesukristo gure Jaunak, bildotsak eta ardiak zaitzeko eskubidea, baitaere anayak sendotzeko eta arteztu ta zuzentzeko eliza guztia.

Eta egiaz Aita Santu Erromako, gu baño lenagokoak chit gozatzen ziran jartzeaz Erromako elizan beren esku Apostoluakgandik etorkenarekin Ama Birjiñaren sorrerako jaya, eta geituta apaintzeaz bere errezu eta mezarekin, zeñatan argiro ziurtatzen zan, jatorriz dakargun bekatutikan garbi zegoala eta zabaltzen era guzietatik ipiñi zan jaya, bai emanik barkamenak; bai eskubidea erri,

probinzia, eta erreñuai artzeko zaitzalletzat Jaungoikoaren ama bere sorrera garbiko izenean; bai ontzat emanarekin Mariaren sorrera garbiaren onran jarritako kofradia, biltzarre eta erlijioak; bai alabantzak emanarekin Mariaren sorrera. garbiaren izenean gauza onen batzuek egiten zituztenai, nolakoak diran conbentuak, eritokiak, aldareak, elizak; edo juramentuaren bean eskeñtzen dutenai zaitzea garratz ta sendoki Jaungoikoaren amaren sorrera garbia. Gañera, pozik erabaki zuen, Ama Birjiñaren sorrera garbiko egunak eliza guzian jai izan bear zuela bere jayotzako egunaren gisara, eta eliza guziak zelebratu bear zuela zortziurrenarekin, eta guziak gorde bear zutela beste jai osoak bezela, eta urte guzietan Ama Donzellaren sorrerako egunean egin zedilla Aita Santuaren elizkizun-batzarrea gure Eliza nagusi Liberioenean. Eta sendotu nairik geiago ta geiago egunetik egunera kristauen animetan Jaungoikoaren amaren sorrera garbiaren gañeko erakutsi au, eta mugitzeko kristauen beren biotzak onratzera eta beneratzera jatorrizko bekatu gabetanik sortutako Ama Donzella ura bera, chit gogotikan eman zuten eskua, aitortzeko Ama Donzellaren letañetan, baita mezako prefazioraño koan ere, Ama Donzellaren beraren sorrera garbia, eta ala erreguaren beraren legearekin, jarri zedilla sinistearen legea. Guri dagokigunez, eta jarraitzen diegula gu baño lenagoko Aita Santu aifñ argitsuen aztarnai, ez bakarrik artu eta ontzat eman degu berak ainbeste ontasun ta jakinduriarekin jarri eta erabaki zuten guzla, baita ere gañera, idukirik gogoan Sixto laugarrenaren erabakia, agindu genduen gure eskuarekin ipintzeko Mariaren sorrera garbiko errezuak, eta gogorik bizienarekin, eman giñon Eliza guziari errezu oyek egiteko baimen ta eskubidea.

Baña nola errezu eta elizkizunak dauden elkarrekin bildu eta itsatsiak, egiten zaiozkanarekin, eta nola ezin iraun ditzaketen sendo eta gogor, egiten zayozkana baldin badago ez bayan eta zabunka, argatik gu baño lenagoko Aita Santu Erromakoak zabaltzen zituztenean arretarik andienarekin Ama Donzellaren sorrerako errezuak eta elizkizunak, alegiñak egin zituzten eta ipiñi zuten kontu eta arreta andia, argitu ta adirazteko zeñi egiten zayozkan eta zeñ zan bere erakutsia; zeren zuzen eta argiro erakutsi zuten, zelebratzen zan jaya zala Ama Donzellaren sorrerakoa, eta erakutsi zuten gaiztoa ta gezurrezkoa zala sinistu eta esaten zutenen iritzia, elizak errezu ta elizkizun oyek etziozkala egiten Ama Donzellaren sorrerari, baizik bere santutuerari; eta uste zuten etzutela izan bear biguñagoak, aurkatzeko Ama Donzellaren sorrera garbiko erakutsiari, iduritu zutenakin, sorreran banak eta bereziak ziradela lenbiziko eta bigarren

unea, eta esaten zutenabin, zelebratzen baldin bazan sorrera, etzala lenbiziko unean; zergatikan eze, zu baño lenagoko Aita Santuak berak sinistu zuten, berai zegokiela gorde ta zaitzea gogorik bizienarekin, errezu eta elizkizunak zuzentzen zayozkan bezela, bai Ama Donzellaren sorrerako jaya, eta bai sorrera lendabiziko unean. Emendik arako itz argiak, zeñakin gu baño lenagoko Aita Santu Alexandro zazpigarrenak agertu zuen argiro eta tolesgabe eliza santaren uste eta iritzia, esaten zuela: «Egiaz da chit anziñakoa Jesukristogan sinistzen dutenen uste eta iritzi ona, bere Ama chitez santa Donzella Mariaren gañean: uste on eta iritzi, sinistzen dutenena, Andre onen anima, bera egiña izandu zan lenbiziko unean eta beraren sartueran gorputzean, izan zala berezitu eta gordea jatorrizko bekatuaren kutsutik Jaungoikoaren berarizko doai eta grazia baten bidez, bere seme eta gizatasunaren zalbatzalle Jesukristo gure Jaunak egingo zituen irabaziak gatik, eta uste onekin zelebratzen dute errezu eta elizkizun ospatsuakin bere sorrerabo jaya.

Oraindikan geiago: jakiñik egon litezkeala lege eta erabaki oyek beren erara aditu eta azalduko dituztenen batzuek, guchitu eta indargabetu nai lukela, lege onen bitartez egiten zayon mesedea esan dan erakutsi ta jayari, begiratu zuten gure aurretiko Aita Santu Erromakoak berarizko kontu eta arreta batekin, eta zaitu zuten gogorik bizien eta aleginik andienakin, idukitzea bere osotasun guztian Jaungoikoaren amaren sorrera garbiko erakutsi eta sinistea: bada ez bakarrik etzuten iñoiz bai utzi erakutsi eta siniste au izan zedilla iñolaerako itzakiatu edo guchitan idukia; baizik gañera, iragorik oraindikan asko aurrerago, agertu zuten argiro ta maiz beren azaldaeretan, Ama Donzella Mariaren sorrera garbiaren gañeangendukan siniste eta ustea zala eta izan bear zuela begiratua elizerrezu ta gauzen chit erakoa, zeñ zan anziñakoa eta esaterako mundu guztitik zabaldua, eta alakoa, non, Erromako elizak artu zuela bere kontura sendotu eta zaitzea, eta chit diña zala egoteko dagokion tokian mezako liburuetan, eta agirian egiten ziraden erre-zuetan. Eta onenbesterekin aspertu gabe, eta iraun zezan kalterikan gabetanik esan dan Ama Donzellaren sorrera garbiko erakutsi eta sinistreak, galerazi zu ten gogortasun chit andiarekin esan eta erakustea agirian edo isillean, erakutsi onen kontrako iritzirik; baitaerre esan lezake utzi zutela egoera gaiztoan eta zaurik beterik alako iritzia. Eta erabaki aiñ argitsu eta aiñ sarritan egiñak alperrika-koak ziradela iñori iritzi etzitzayon, eta gelditu etzitezen osotu gabe, egotzi zuten. erabaki bat; guziau sartu zuen gure aurreti-

ko Aita Santu gloriáz beteriko Alexandro zazpigarrenak itz oyetan:

«Gogoraturik guk, Eliza Santu Erromakoak zelebratzen duela ots andierekin Maria beti Donzella garbiaren sorrerako Jaya, eta bere onran ipiñi zituela berari dagozkion berarizko errezuak, Sixto laugarren, gure aurretiko Aita Santuak orduan egin zuen erabaki on eta alabagarriaren gisara; eta gu baño lenagoko Erromako Aita Santuen ejenplura, geitu nairik oitura eta debozio alabagarri ori, jai, errezu eta elizkizun oyek, emanak bere erara; eta asi ziradene-tik Erromako elizan errezu eta elizkizun oriek iraun dutela ozertan ere aldatu gabe; baitaere sendotu nairik Ama Donzella chit santu onratu eta bere egunak zelebratzeko gogo eta debozioa, jatorrizko bekatutik berezitu eta gordea bezela, Espiritu Santuagandik etorri-tako grazia baten bidez, eta iraun erazi nairik Jesukristoren artal-dean animako elkartasunari pakeko lokarriarekin, itzalirik espak, eta ezbayak, eta kendurik gaitzbideak, aitatu diraden Apaiznagusi Jaunen eskari eta erreguz, beren elizetako bakoitzaren kabilduakin, eta Felipe erregearen eta bere erreñuenakin; eskari eta erregu, egiñak izan zatzazkigunak; berriztatzen ditugu, gu baño lenagoko Aita Santu Erromakoak eman zituzten erabaki eta aginteak, eta ba-tezere Sixto laugarrenak, Paulo bostgarrenak, eta Gregorio ama-bostgarrenak, esan eta erakusten dutenen alde, Ama Donzellaren anima egiña izan zanean, eta gorputzean sartua Espiritu Santuaren grazia eta mesedez izan zala berezitu eta gordea jatorrizko bekatu-tik; baitaere Jaungoikoaren Ama Donzella Mariaren sorrerako jai, errezu eta elizkizunen alde eta onean, egiten zaizkala iritzi on orren erara, esanik daramagun bezela, berriztatzen ditugula, esaten degu, esan diraden lege eta erabakiak, eta agintzen degu gorde ditezela, esan diraden legeetan ipintzen diraden kastigu eta elizpeneen bean.

Eta gañera nai degu, esan diraden lege eta erabakiak alako mo-duan azaldu nai dituzten guziak eta bakoitzak, non, utzitzen duten utsean beren bidez egiten zayon mesedea, esan dan erakutsi eta jayari, edo bere erara egiten zayozkan errezu eta elizkizunai; edo ezbayan ipintzen dituztenak erakutsi, jai, edo errezu eta elizkizu-nak; edo oyen guzien kontra zuzen edo zearretara, naiz edozeñere aitzakiarekin; baita balitza ere aztertze-ko bere erabakitasuna, edo azaldu eta argitze-ko liburu santuak, edo elizako irakasleak edo jakintsuak; azkenik edozeñere aitzakia edo gauzaga-tik, letraz edo itzez, ausartatuko balirade itz egiten, predikatzen, tratatzen, edo disputatzen, erabaki, edo esaten dutela zerbait onen kontra, edo ipiñirik argudioak, eta utzirik erantzun gabe edo ezbayan; ari dira-dela asmatu al lezakean beste edozeñere modutan; nai degula, esa-

ten degu, oriek guziok, Sixto laugarrenaren legeetan dauden kastigu eta elizpeneen gañera, zeñak bete betean arrapatzen dituzten, edo oraingoakin dauden arrapatuak, orduanche bertan eta beste argitasun gabe gelditu ditezela eskubide gabe predikatzeke, emateko agirian argibideak, irakasteko, eta azaldatzeko; eta aukera mota-guzietan inor aututzeko, edo berak autuak izateko; eta gelditu ditezela berdin *ipso facto* eta argitasun geiago gabe, ez inoiz berriz predikatzeke, argibideak agirian emateko irakasteko eta azaldatzeko kastiguarekin; zeñatetik peneetatik bakarrik guk, edo gure lekuan gero jarriko diraden Aita Santu Erromakoak izan ditezkeela absolbituak edo irichi zertan edo artan askatuak izatea; baitaere berebat nai degu onelakoak irago ditzatela Guk edo Gure lekuan jartzen diraden Aita Santu Erromakoak ipintzen diozkaten beste kastigu ta penak, eta orain ematen degun erabakiarekin beren mendean jartzen ditugu, berriztaturik len aitatu diraden Paulo bostgarrenaren eta Gregorio amabostgarrenaren lege eta aginteak.

Eta liburu eragotziaz ipiñitako kastigu eta elizpeneen bean galerazitzen ditugu arako liburu guziak, zeñatan ipintzen dan' ezbairen bat osan dan erakutsi, jai, edo bere erako errezu eta elizkizunen gañean, edo zeñatan bere kontra eskribitzen edo irakasten dan zertait, edo zeñatan dauden esate, sermoi, itz eta ezbayak gauza oyen kontra; galerazitzen ditugula, esaten degu, liburu oriek, argitara emanak len goian aizatu dan Paulo bostgarrenaren erabagiak irten ezker; edo emendik aurrera argitara irten litzakenak; eta nai degu eta agintzen degu, argitasun geiagoren premia gabe izandu ditezela idukiak argiro galerazitzat.»

Orain bada ongi: gauza chit jakiña da, nolako gura eta garrarekin erlijiorik argitsuenak, Teologiaco eskolarik otpatsuenak, eta jaungoikozko gauzen ezagueran erakuslarik jakintsuenak adirazi, zaitu eta gorde izan duten Jaungoikoaren Ama Donzellaren sorrera garbiaren gañeko erakutsia. Orobat da guziak dakiten gauza, zeñ arduratsuak izan diraden elizgizon apaiz nagusiak beren elizbatzarretarañoetoan, adiratzten argiro eta agirian, Maria Donzella chit santa, Jaungoikoaren ama, Jesukristo gure Salbatzallearen irabaziaz lendanaz begiratura, etzala inoiz egon jatorrizko bekatuaren mendean, baizik izan zala osoz berezitu eta gordea, jatorrizko kutsutik eta beragatik izan zala erredimitua era eta modu goratuago batean; Oni erachekitzen zayo gogorazio chit balio andiko bat, guzien artean baliorik andienekoa, au da, Trentoko elizbatzarrearena: Batzarre santu au zijoanean ipintzera fedeko sinistamentzat jatorrizko bekatua, Eskritura Santa, Elizako guraso irakasle, eta Elizbatza-

rrerik ospatsuenen irakasiarekin batean, eta beren erara, erabaki eta azaldu zuen argiro, Adanen seme alaba guziok sortzen gerala Jatorrizko bekatuarekin zikinduak. Erabaki au zabala bada ere, ordu artan bertan azaldu zuen argiro, etzala bere asmoa Jaungoikoaren Ama Donzella Maria chit santa, eta chit garbia dana, erabaki onetan artu eta sartzea. Azaldaera onekin bada Trentoko Gurasoak erakutsi zuten bear zan bestean, begiraturik denboren zerzeridadeai, Ama Donzella chit santa berezitu eta gordea izan zala jatorrizko kutsutik, eta beregatik argiro adiraztera eman zuten, ezin atera lezakeala ezerere liburu santuetatik, ez aitatik seme iragotzen dan erakutsitik, ez elizako guraso erakaslen esanetatik, Ama Donzellaren doai aifñ andiaren kontrako gauzarikan batchoere.

Eta egiaz: Ama Donzellaren sorrera garbiko erakutsi au, geiago eta geiago azaldataua egunetik egunera eta aifñ ederki argitu eta sendotua Elizaren uste, erakutsi, ikasi, argitasun eta jakinduria pisu andikoarekin, eta zabaldua modurik arrigarrienean kristau katoliku guzien erri eta erreñu guzietan, egon zala beti elizan bertan gure asabetatik artua bezela, eta zerutik jatsitako erakutsia bezela ziurtatzen dute chit sendoki anziñako oroipengarri ospatsu eta benegarriak, ala eguzkiaren irteerako elizakoai nola sartaldekoak; bada izanik Kristoren eliza, bere kontu, arreta, eta ardurara utzitako sinisgayen zaitzalle eta gordetzallea, ez du iñoiz beretan ezercho ere aldatzen, ez guchitzen, ez geitzen; baizik arretarik aundienarekin begiraturik, eta leyaltasun eta jakinduriarekin, gordetzen du anziñakoakin batean. Eta baldin batzuek izandu baziraden illunabarean bezela anziña ikusiak, eta elizako guraso erakuslen fedea mugitu bazituen, egiten ditu alegiñak limatu eta leuntzeko alako moduan, non, zeruko erakutsiaren anziñako siniste fedeko ayek artzen dute ziertotasuna, argia, bakoitzak beretasuna, baña batean idukirik aurrerago beren betetasuna, beren osotasuna, beraí dagobiena, eta bakoitza bakarrik azitzen dala beretasunean, au da, dan fedeko sinistamenean bertan, iritzi artan bertan, uste artan bertan.

Eta egiaz, elizako guraso erakasleak, izanik erakutsiak, zeruko argiarekin, ez dute ezer begiratu arreta aundiagoarekin liburu santuak azaldatazeko eskibatu zituzten beren liburuetan, zaitzeko fedeko sinistamenak, eta emateko erakutsiak kristauai, non, predikatzea eta goratzea elkarren leyan eta era asko eta arrigarrietan bezela, Ama Donzellaren santutasun eta diñade chit goratua, bere garbitasuna bekatuaren kutsu guzitik, eta berak irabazitako garaipen ederra gizatasunaren etsairik nazkagarrienari. Beragatik esaten dituztenean arako itzak, zeñakin Jaungoikoak,

lendanaz adirazirik, munduaren asieratik bertatik, bere ontasunean prestatzen zituen sendagarriak, gizon ilkorren berriztaziorako, lotu zuen sugerean azarkeria eta chit asko goratu zituen gizatasunaren ichedopenak, esaten zuela: *Ipiñiko zetikat aserreak ire eta emakumearen artean, ire jatorriaren eta berearen artean*; erakutsi zuten, Jaungoikoak berak esandako itz oyetan, lendanaz adirazten zala argiro eta idikiro, gizatasunaren salbatzalle urrikaltsua; au da, Jesukristo Jaungoikoaren seme bakarra, eta izendatzen zala bere Ama Donzella chit santa Maria, eta denbora artan bertan adirazten ziradela chitez argiro, bataren eta bestearen aserreak demonioaren kontra. Beragatik, nola Kristo Garaipenlariak, Jaungoikoaren eta gizonen arteko pakegilleak, arturik gizonaren izatea borratu zuen gure kontra emanik zegoan erabakia, Gurutzean iltzatzen zuela; ala Donzella chit santak, baturik berarekin lokarri chit estu eta askatu ezin lezakean batekin lokarri chit estu eta askatu ezin lezakean batekin, eta egonik berarekin batean eta beragatik aserreturik beti suge edentsuarekin, eta irabazirik berari garaipenik osoen, cheatu zuen bere oiñ garbiarekin onen burua.

Ama Donzellaren garaipen chit eder eta bakar au, baitaere bere obengabetasun chit argia, bere garbitasuna, santutasuna, eta nola zegoan bekatuaren kutsurikan batere gabe; baitaere zeruko grazia, bertute eta aukera guzien ugaritasun eta anditasun, adirazi ezin lezakeanarekin, ikusi zuten irudituta Elizako Erakusleak berak, bai arako Noeren kucha, Jaungoikoaren aginduz eginda, gelditu zanean kalterikan batere gabe eta oso osorik mundu guztia ondatu eta ito zanean; bai arako zurubia, Jakobek lurretik zeruraño allegatzen zala ikusi zuenean, zeñaren malletatik igotzen eta jechitzen ziraden Jaungoikoaren aingeruak, eta zeñaren garaiean zegoan Jaungoikoa bera; bai arako sasi, Moisesek erazekia toki santuan ikusi zuenean; eta suzko garrik bizi eta tragalenen erdian, ez bakarrik etzala erretzen, baizikan irauten zuela eta zegoala berde, loratsu, eta ederra; bai arako etsayak arrapatu ezin zuen dorrean, zeñatatikan zeuden esekita milla ezkutu, eta errutsuen arma talde guzia; bai arako baratza zerratuan, zeñean ezindaitekean iñor ere sartu, ez andikan ezer ostu iñolako marro, ez astruziarekin; bai arako Jaungoikoaren erri argitsuan, zeñaren zimenduak dauden mendi santuetan; bai arako Eliza chit ederrean, zeñ zeruko argitasunakin apainduta, dagoan Jaungoikoaren gloriáz betea; bai azkenik modu onetako beronetako irudi eta gauza askotan, zeñatan guzietan erakutsi zuten Elizako gurasoak, iruditzen zala Jaungoikoaren amaren diñade goratua, bere garbitasun iñoiz loitu gabea, eta

bere santutasun iñoiz ezaindu gabea, utsegite, ez bekatu bakar batekin ere.

Adirazteko itz guchitan, Jesus beragandik jayo zan Donzellaren zeruko graziak eta bere jatorrizko osotasuna, Elizako Erakusleak berak, arturik Profeten itzak, etzuten zelebratu beste era eta modutan Donzella eta Erregiña, baizik ots egiten ziotela uso garbia, Jerusalem santua, Jaungoikoaren esertoki goratua, santutasuneko kucha; betiko Jakinduriak beretzat egin zuen echea; eta arako Erregiña, gozotasunez beterik eta eldurik bere maiteari, atera zana Jaungoiko chit Goratuaren aotik guzia osoa; guzia ederra, eta guzia Jaungoikoak maitatua, eta kutsu bakar batekin ese iñoiz zikindu gabea. Eta uste izanik Elizako guraso eta erakusleak berak eta elizako gauzak eskribitu dituztenak, aingeru San Gabriele Jaungoikoaren amaren, diñade chit goratuaren albista eta berri ona eman zionean, esaten ziola Maria Donzellari Jaungoikoaren beraren izenean eta aginduz graziak betea, erakutsi zuten, agur, berri on eta albista berarizko, ospatsu eta iñoiz aditu gabeko onekin adirazten zala, Jaungoikoaren Ama izan zala Jaungoikoaren grazia guztien esertokia, Espiritu Jaungoikozkoaren doai guztiakin apaindus; baitaere izan zala grazien beren gordeleku, guchi bear zuena izateko amaigabea, eta osin leortu ezin lezakean bat, alako moduan non, etzan iñoiz egon madarikazioaren mendean, baizik, izanik betiko bedeikazioaren partill semearekin batean, duin izan zan aditzeko Isabelen aotik, Espiritu Santuak argituta: *Bedeikaturia zu andre guzien artean, eta bedeikaturia zure sabeleko frutua.*

(Bukatuko da.)



GURE JAUN CHIT SANTU PIO BEDERATZIGARRENAREN,
JAUNGOIKOAREN PROBIDENZIAZ AITA SANTU DANAREN,

APOSTOLU LETRAK,

JAUNGOIKOAREN AMA DONZELLAREN SORRERA GARBIA
FEDEKO SINISTAMENTZAT JARRI ZUENEAN EMANAK.



(BUKAERA.)

Emendik orrako beren diradenen uste, sinistamen eta iritzi al-debaterako eta indartsua, Ama Donzella gloriak beteak, zeñagan egin zituen gauza aundiak Guzia aldezakeanak, argi egin zuela zeruko doai guzien alako indarrarekin; graziaren alako betetasunakin; eta alako garbitasunarekin, non, izan zala Jaungoikoaren mirari, aditu, ez adirazi ezin lezakean bat bezela, edo obekiago esateko, mirari guzien garaya bezela, eta Jaungoikoaren Ama duiña, eta eldu ta allegaturik Jaungoikoagana beragana aragizko izate bat al-lezakean ere duan, izan zala egiña, gizon eta aingeruen alabanza guziez gañetikoa. Eta ala, zaitzeko Jaungoikoaren amaren kutsu gabetasun eta jatorrizko zuzentasun eta garbitasuna, ez bakarrik berdindu zuten chit maiz Eba, oraindikan donzellarekin, oraindikan zikindu gabearekin, oraindikan usteltasun gabearekin, oraindikan engañatu gabearekin suge chit malmutsaren astruzia ilgillakin, bai ta ere jarri zuten aren aurretik, ekarririk onetarako itz eta esate arrigarri eta era askotako batzuek: zeren Eba chit urrikigarriak egiñik sugearen esana, galdu zuen jatorrizko garbitasuna, eta jarri zan aren mendean; baña Ama Donzella chit santa Mariak, joanik geituaz beti jatorrizko doaia, ez bakarrik etzituen aditu sugearen itzak, baizik arras desegin zuen bere indar eta eskubidea, goitikan artu zuen bertutearekin.

Argatik etzioten iñoiz utzi ots egin gabe Jaungoikoaren Amari, orain lirioa, arantzen artean; gero, lur iñork ukiturik egin gabea; donzella, zikindu gabea, garbia, beti bedeinkatua, eta bekatuaren

kutsu gabea, zeñagandik izan zan egiña Adan berria; bai obengabetasuneko, betiko bizitzako eta atsegiñezko baratza aitzakia gabeakoa, chit argia, chit gozatsua, Jaungoikoak berak egiña, eta suge pozoiz betearen zelatada guzietatik gordea; bai zur, igartu eziña, bekatuaren arraren ortzak iñoiz zulatu gabea; bai iturri garbi eta samarrikan gabea, eta Espiritu Santuaren bertutez sillutua; bai eliza chit Jaungoikozkoa; bai iñoiz ez iltzeko gordelekua; bai alaba bakarra eta lagungabea, ez eriotzarena, baizik bizitzarena; asia, ez aserrearena, baizik graziarena, beti ostotsua, sustrai usteldutik irtena izan arren, loretu zana Jaungoikoaren berarizko, lendanaz egindako erabakiaren bidez, oi diraden eta eginda zeuden legeetatik landara. Eta au guzia aifñ argitsua izan arren, asko ez balitz bezela, esan zuten itz argi eta berarizkoakin, bekatuaren gañean itz egiten zanean, ezin ukitu litzakiokeala Ama Donzella Mariari, eta sinistu zuten arako Donzella chit gloriáz betea izan zala gure gurasoen sendatzallea, beren jatorriaren piztutzallea, betiraundetik autua, chit Altuak beretzat gertutua, Jaungoikoak adirazia esan zionean sugeari: «Jarriko zetizkiat aserreak ire eta emakumearen artean», zeñak oñazpian zapatu eta desegin zuen ezbairikan gabe sugearen beraren buru pozoitsua; eta argatik esan zuten, Ama Donzella Maria izan zala graziaz gordea bekatuaren kutsu guzitik, eta berezitua bere izurri guzitik gorputzean, animan, adimentuan, eta beti bizi izan zala Jaungoikoarekin batuta betiko elkartasunarekin, eta etzala iñoiz egon illunbean, baizik beti argitan, eta argatik izan zala bizileku bat, chit diña Jesukristorentzat, ez bere gorputza berez zanez, baizik bere grazia jatorrizkoagatik.

Egotzi bediz arako esate ederrak, zeñakin Ama Donzellaren gañean itzegiten dutenean, ziertotzat eman zuten, izateak leku egin ziola graziari, eta bere aurrean egon zala geldirik beldurrez ikara, ausartatu gabe aurrera joaten; zergatik eze, gertatuko zan ez sortua izatea Jaungoikoaren. Ama Donzella Anaren sabelean, graziak bere frutua eman baño lenago: eta egiaz, chit ongi zetorren Maria Donzella chit santa grazian lenago sortzea, izatean baño, gauza guztiai izatea emanik dioten Jaunari, Donzella onek izatea emango zion ezkeror. Ziertotzat eman. zuten, Donzella onen aragiak, Adangandik artua bazan ere, etzituela artu Adanen kutsuak, eta argatik Ama Donzella chit santa, zala eliza bat Jaungoikoak berak ezerezetik ateratua, Espiritu Santuak egiña, eta egiaz argiz jantzitako lan, Beseleel berri arek egin zuena, urrezko apaingarri era askotakoakin, eta bera zala eta arrazoyarekin zebratzen zala, Jaungoikoari dagokion lenbiziko lana bezela, egon zana etsai gaiztoaren

dardo erazekietatik ezkutatua; eta izate ederrekoa, eta kutsuaren izpirikan gabea; eta etorri zana mundura egunsentiko izar argitsua bezela, bere sorrera garbian. Zergatik eze, etzan ongi, aukerako ontzi au izan zedilla usteldua gañerakoak bezela; hada izanik bes-teetatik chit desberdina, izan zan beren partill izatean, baña ez bekatuan; bai ta ere bear zan dudarikan gabe, seme bakarrak iduki zuen bezela zeruetan Aita bat, zeñ Serafiñak alabatzen duten esaten diotela iru aldiz Santua, ala iduki zezala lurrean ama bat, iñoizko alditan arkitu etzana santutasuneko argi gabetanik. Eta erakutsi au alako moduan zegoan itsasia gure asaben biotzetan; non, beren artean sarrien egiten zan izketa mot berarizko eta arrigarri au, zeñarekin askotan esaten zioten Jaungoikoaren Amari garbia eta aldamen guzietatik garbia; obengabea eta chit obengabea; mancha gabea, eta edozeñ aldamenetik manchagabea, santa, eta bekatuaren natu eta zetakaren apurrikan gabe dagoena; chit garbia, guzia usteltasunikan gabea eta guchigatik garbitasunaren eta obengabetasunaren ispillu eta irudia ura bera; edertasuna baño ederragoa, politasuna baño politagoa, santutasuna baño santaagoa, eta bera bakarrik santa, eta chit garbia animan eta gorputzean; atzera utzi zituen osotasun eta donzellatasun guzia; eta bera bakarrik egiña izan zana oso osorik Espiritu Santuaren grazia guztien berarizko tokia, eta Jaungoiko bakarraz landara, izan zana beste guztiak baño andiagoa, eta galantagoa, ederragoa eta santaagoa izatez Kerubiñak eta Serafiñak eta aingeruen talde guziak baño, eta bera alabatzeko ez diradela asko ta duin lurreko, ez zeruko mingaia. Eta guztiak dakitena da, itzegiteko oitura mot au zabaldu zala berez bezela liburu santuetako oroipengarrietara eta elizako errezueta, eta beretan arkitzen dala guzien artean ugarien; bada beretan ots egiten zayo eta adirazten da Jaungoikoaren Ama, aso chit eder eta obenikan batcho ere gabeko bat bezela; arrosa fresko eta aldamen guzietatik chit garbia bezela; eta beti obenikan gabea, eta beti doat-sua; eta zelebratzen da, obengabetasun iñoiz zauritua izan etzana bezela; eta bigarren Eba, zeñagandik Etninaniel, edo gurekin dan Jaungoikoa, jayoko zan.

Ez da bada gauza arrigarria, Jaungoikoaren Ama Donzellaren sorrera chit garbiaren erakutsi au, arkitzen dana gure fedeko liburu santuetan elizako guraso erakusleen iritzian; adirazia eta zelebratua anziñako oroipengarri aia argitsu, eta beneragarrietan; agertua besteai sinistu erazitzeo arrazoyakin eta Elizaren iritzi nagusien eta indar andikoarekin; ez da gauza arrigarria, esaten degu, erakutsi au pozik aundienarekin sinistu badute egunetik egunera ala-

ko biotz gertutu, fede bizi eta amorioarekin elizako artzayak berak eta kristau fededunen erriak, allegatzeraño ezer ere ez izatera gogo-koagorik, ez ta ere pozgarriagorik, Jaungoikoaren Ama Donzella, jatorrizko bekatuaren kutsurikan gabe sortua, aldamen guzietatik eta gurarik bizienakin onratzea, beneratzea, berari premietan ots egitea, eta bere alabantzak predikatzea baño. Argatik anziñako denboretatik Apaiznagusiak, apaizak, errelijiosoak, bai ta Agintari eta Erregeetarañokoak berak ere, erregu chit andiak egin ziozkaten Apostoluen Esertoki oni, ontzat iduki zezala erabaki eta ipintzea fedeko egiazat Jaungoikoaren Ama chit santaren sorrera garbia. Eta erregu oyek berriz egiñak izan dirade gure egunetan ere, eta batez ere Gregorio amaseigarren, gure aurretiko Aita Santu, oroipen gloriak betekoari egiñak izan zitzaizkan, bai ta Guri ere egin dizkigute bai Apaiz nagusiak, bai apaizak, bai erreljioak, eta bai agintari andi eta kristau erriak.

Ala bada, jakiñik au guzia gure animako poz aundienarekin, eta erabillirik arrezaz gogoan, duiñak ez bagiñan ere, Jaungoikoaren Probidenziaren erabaki goratu eta ezkutuen indarrez eregiak izan giñan bezin laster Pedroren esertoki goratu onetara, eta artu giñitueneko eliza guztiaren zuzenbidearen brida iialak, jarraiturik gure, gaztechoak giñan urteetatik Maria Donzella chit santari genion debozio, gura on, eta benerazioari, erabaki genduen Eliza santaren gura, oraindikan bete gabetanik zeudenak betetzeko al-genza-keana egitea, geitu zedin Donzella chit santaren onra, eta argia geiago eta ugariago bota zezaten bere anditasunak. Ala ere ibilli nairik bear dan kontu, arreta eta zentzuarekin, izendatu genduen onerazpen, itunda eta Jaungoikozko jakinduriak beteak zeuden elizgizonen berarizko batzarre bat. Batzarre au egiten zuten elizgizonak ziran gure anaya beneragarri, Erromako Eliza Santako Kardenalak, eta laguntzat eman giñiezen beste elizgizon batzuek, bai apaizetatik, bai erreljiosoetatik, teolojiako gauzetan berdin eta berariz jakitsuak, aztertu zezaten albait astiroen, Ama Donzellaren sorrera garbiari zegokion guztia, eta esan zizaigutela beren iritzia. Baña artu giñituen eskarien bidez, erabakitzeke fedeko egiaztat Mariaren sorrera garbia, bagenekien ere elizako apaiznagusi askoren iritzia, Otsaillaren bigarrenean milla zortzireun eta berrogeita bederatzigarrenean bidaldu genien Gaetatican mundu zabal guziko Apaiznagusi anaya beneragarri guztiai karta bat, agintzen geniotela Jaungoikoari erregu biziak eginda, agertu zizaigutela izkribuz, nolakoa zan beren mendeko Kristauen jayera ta debozioa Jaungoikoaren amaren sorrera garbiaganako, eta batez ere, zeñ zan

Apaiznagusien beren iritzia, fedeko egiaztat erabakitzearen gañean, eta nolakoak ziran aldamen onetatikan beren gurak, eman genezan gure azkenengo erabakia, al-zan otsik andienarekin.

Etzan izan chikia artu genduen poza, allegatu zitzazkigunean, aipatu diraden Anaya Beneragarrien erantzuerak; bada berak, iz-kribatzen zigutela esan ezin lezakean atsegin eta gozotasunarekin, sendotu zuten berriz, ez bakarrik beren jayera eta debozio berarizkoa Maria Jaungoikoaren Amaren sorrera garbiaganako, bai ta ere beren mendeko apaiz eta kristau fededunena; berebat gañera guzien izenean bezela eta guzien gura bezela, eskatu ziguten, erabaki genezala gure erabaki eta eskubide gorengoarekin, Donzella aren beraren sorrera garbia. Etzan ere chikiagoa artu genduen poza, aitatatu dan berarizko batzarreko Kardenal Beneragarriak eta goyan esan diraden Teologu ituntzalleak, gerok autuak, azterrenik arduratsuen egin ezkerro, eskatu zigutenean gura ta gar berdiñarekin, Jaungoikoaren amaren sorrera garbiaren erabaki au.

Gero jarraiturik gure aurretiko Aita Santuen aztarna argitsuai, eta ibilli nairik ongi eta bear dan bezela, ots egin genion eta iduki genduen batzarre bat, zeñean zuzendu genien itza gure Anaya Beneragarri, Erromako Eliza santako Kardenalai, eta gure poz ezin esan lezakean batekin aditu genion, eskatzen zigutela, ontzat iduki genezala ematea Jaungoikoaren Ama Donzella Mariaren sorrera garbiaren fedeko erabakia.

Ala bada, ichedopen chit andi batekin Jaunagan, eta sinisturik allegatua dala, Jaungoikoaren Ama Donzella Mariaren sorrera garbia fedeko egiaztat erabakitzeko denbora egokia, zeñ aiñ miragarriro argitu eta adirazten duten gure fedeko liburu santuak, aitatik seme iragotako erakutsi beneragarriak, Eliza Santan dirauan oituerak, Apaiznagusi eta kristau fededunen berarizko elkartasunak iritzi onetan; aztertu ezkerro kontu eta arreta andi batekin gauza guziak; eta zuzendu ezkerro Jaungoikoari aspertu gabe errege bi-ziak, sinistu degu, ez degula ezbayan eta zabunka egon bear, agirian sendotu eta erabakitzeko gure gorengo erabakiarekin, Ama Donzellaren beraren sorrera garbia; eta bete onela, munduko kristau fededun guzien gura chit onak; eta guk gerok Ama Donzellari diogun berarizko jayera eta debozioa; eta era batean onratu geiago eta geiago beragan bere seme bakar Jesukristo gure Jauna, zergatik eze, semeagana dijoaz, Amari ematen zaizkan onra eta alabanza guztiak.

Argatik bada, utzi gabe eskeiñtzeari umiltasunarekin eta barauakin guk bakarrean egindako erregeak eta Eliza Santaren eskari

agirikoak Aita Jaungoikoari bere Semearen bitartez, ontzat iduki dezan zuzendu eta sendotzea gure adimentua Espiritu Santuaren bertutearekin; eskaturik zeruko zorioneko guzien laguntasuna, eta ots-egñik gogotikan Espiritu Santu Gozatzalleari, eta berak argituak izanik, Trinitate Santu eta ezin berezituaren onran, Jaungoikoaren Ama Donzellaren argitasun eta apainduriarako, katolikuen fedea goratzeko eta kristauen erreljioa geitzeko, Jesukristo gure Jaunaren, San Pedro eta San Pablo doatsuen eta Gure eskubidearekin, azaldu, epaya eman eta erabakitzen degu, Jaungoikoak agertua izan dala, eta argatik beti beti eta sendoki kristau guziak sinistu bear dutela esaten duen erakutsia: MARIA DONZELLA CHIT SANTA, BERE SORRERAKO LENBIZIKO UNEAN, JAUNGOIKO GUZIU LEZAKEANAREN GRAZIA ETA ESKUBIDEZ, BEGIRATURIK JESUKRISTO, GIZATASUNAREN SALBATZALLEAREN IRABAZIAI, IZAN ZALA GUZIZ ETA OSOTORO LIBRATUA, JATORRIZKO BEKATUAREN KUTSU GUZITIK. Beragatik baldin, Jaungoikoak. onelakorik utzi ez dezala, baleude norbaitzuek ausartatzen diradenak uste izaten, Guk erabaki degunaren kontrako gauzarik, jakin eta aditu bezate, beren iritziarekin berarekin kondenatuak diradela; fedean utsegin dutela, eta berezitu diradela Elizaren batasunetik; eta gañera, egiñarekin berarekin gelditzen diradela legeetan jarritako pekeen mendean, beren barrenen uste dutena, ausartatuko balirake agertzen kanpotik itzez, izkribuz, edo Leste edozeñ eratan.

Egiaz, pozaren indarrez gañez egiten du gure aoak, eta atsegiñez gure mingañak eta ematen diozkagu, eta emango diozkagu umiltasunik andienarekin eta gogorik bizienarekin eskerrak Jesukristo gure Jaunari duiñ izan gabe, egin digun berarizko mesedeagatik, erabaki eta eskeñtzean gloria eta alabanza au bere Ama chit Santari. Gañera, arkitzen pera, degula ichedopenik ziertoena eta usterik osoena, Donzella chit santa onek beronek, zeñak, izanik guztia ederra eta obenikan gabea autsi zuen bere oñazpian suge odolgiroaren buru pozoitsua, eta ekarri zuen salbazioa mundura; eta zeña dan Profetak eta Apostoluak alabatua, eta martirien onra eta santu guztien poz eta aroa, eta irriskuan daudenen igestokirik seguruena, eta lagunik leyalena eta bitartekorik alclunena bere Seme bakarraganako, eta pakegillea, eta Eliza santaren apaingarrikerik ederrena, eta bere baluarterik sendoena; nola dan bera desegin zituena beti erejia gustiak; eta gorde zituena naigabe mot guztietatik, bai ta ikaragarrienetatik ere, fede egiazkoa duten erri eta erreñu guziak; eta Gu gerok ere nola atera ginduen irrisku chit aundietatik bere bitartekotasun chit aldunarekin, arren urrutiratu ditza-la eragozketa guziak, desegin siniste gaizto guziak, eta Eliza Ama

Santa Katolika geitu eta zabaldu dedilla erri eta erreñu guzietan eta agintatu dezala itsaso batetikan bestera eta lurraren bukaerara-raño, eta egon dedilla pake, atsegin, aukera eta bere jabetasun osoan; onela bekatariak irichi dezaten barkazioa, eriak osasuna, beldurriak ausartasuna, naigabetuak gozotasuna, eta irriskuan dau-denak laguntasuna; eta galdurik dabilztanak, itzuli ditezela bide zu-zenera, argiturik beren adimentuetako illuntasunak eta ez dedilla onezkero egon arditoki bakar bat, eta Artzai bakar bat baizik.

Aditu bitzate gure itz oyek Eliza Santaren seme guziak, zeñak aifñ maite ditugun, eta geroago amorio eta gogo geiagorekin jarrai-tu bizayote onratzeari, beneratzeari, eta otsegiteari beren premie-tan, Donzella chit doatsu Maria Jaungoikoaren Ama, jatorrizko be-katu gabetanik sortunri, eta beren irrisku guzietan, beren naigabe guzietan, beren premia. guzietan, beren ezbai eta esturasun guzie-tan zuzendu ditezela ichedopen osoarekin urrikizko eta graziazko Ama chit gozo onegana; hada. ez degu zertan ezeren beldur izan, eta guztia. ichedon bear degu, egon ezkero bere mendean, bere ar-durara, bera gure lagun eta bitarteko degula; zeren berak begira-tzen digu ama baten amorioarekin, eta nolaberak daukan gure sal-baziora zuzentzen diraden gauza guzien kontu aifñ andia; berak arreta andi batekin zaitzen du gizatasun guzia, eta, nola Jaunak egin zuen zeruetako eta lurreko erregiña, eta nola jarri zuen ain-geruen koru guziez gañetik, eta santu guzien gañetik, eta nola dagoan bere seme bakar Jesukristo gure Jaunaren eskuyeko alda-menean, dirade chit indartsuak bere erregu, ama baten erreguen gisakoak, eta irichitzen du eskatzen duena, eta ezin beifñ ere utsean gelditu diteke bere eskaria.

Azkenik, Ama Donzella Mariaren sorrera garbiaren gañeko era-bakiaren berri au allegatu dedin Eliza guzira, da gure borondatea, gure Apostolu Letra oyek beti iraun erazi dizayotela oroipen oni, eta agintzen degu, arkitzen diradenean berak aldatuta edozeñ to-kitan, naiz ta moldezko letretan, notario agiriren batek, edo eliza-ko diñaderen bat duenak firmatuak, guziai eman dizayotela, oyek agertu eta erakutsiko baliezte emango liozkateken bezelako fede eta siniste ura bera.

Iñori ere bada ez, bizayo izan bidezko ta zillegi ausitzea gure azaldaera, epai, edo erabaki au, edo ausartasun bidegabeko batekin, berari aurkatu, edo kontra egitea. Baldin iñor ausartatuko balitz onelakorik egiten, jakin beza, Jaungoiko guzia dezakeanaren eta San Pedro ta San Pablo doatsuen aserrean jartzen dala. Erromako San Pedron emanak, Abenduaren zortzigarrenean, milla zortzire-

un eta berrogeita amalaugarren urtean, Aita Santu geranetik bederatzigarren urtean.

PIO BEDERATZIGARRENA, AITA SANTUA.

Versio Bullæ *Ineffabilis* in linguam bascam facta á subscripto fratre missionario in hoc seraphici patris nostri sancti Francisci Fratrum Minorum Observantium Missionariorum, Villæ de Bermeo, in Hispania, diœcesi Calagurritana, collegio, sexto calendas Martii, anno á Nativitate Domini nostri Jesuchristi millesimo octingentesimo sexagesimo secundo.

Visa per memetipsum anteriori Bullæ *Ineffabilis* in linguam bascam versione, comperi recte fideliterque esse factam, in cujus fidem manu mea subscribo, et majori officii mei sigillo munio in hoc seraphici patris nostri sancti Francisci Fratrum Minorum Observantium Missionariorum Villæ de Bermeo, in Hispania, Provincia Bizcayæ. Diœcesi Calagurritana, collegio, sexto calendas Martii, anno á Nativitate Domini nostri Jesuchristi millesimo octingentesimo sexagesimo secundo.

